# TXOSTENA
# MEMORIA

# 2005/2025

Portugalete
FUNDACIÓN
Manuel Calvo

# ÍNDICE

# AURKIBIDEA




| | | |
|---|---|---|
| SARRERA | 4 | INTRODUCCIÓN |
| AGURRA | 6 | SALUDA |
| BIOGRAFIA | 8 | BIOGRAFÍA |
| TESTAMENTUA | 10 | TESTAMENTO |
| ISTORIO LABURRA | 12 | BREVE HISTORIA |
| BIDAIA KRONOLOGIKOA<br>JARDUEREN LABURPENA (2005-2025) | 18 | VIAJE CRONOLÓGICO<br>ACTIVIDADES 2005-2025 |
| PROGRAMAK | 34 | PROGRAMAS |
| PERTSONAK | 35 | PERSONAS |

Erakunde hau Manuel Calvo Aguirre jaunak fundatu zuen, hainbat urtetan Kuban bizi eta lan egin ondoren. Sorterrira itzuli zen bere herriari gizarte-ongizatea ekartzeko xedez. Hori dela eta, mende bat baino gehiago igarota, konpromiso eta zerbitzuz jositako historia aberasgarri bat bilbatu du. Hastapenetik, fundazioak jardun du herritar zaurgarrienen beharrei erantzuteko. Abian jarri zuten lehen etapetan txiro nahiz behartsuei jana ematen bazieten ere, oraingo garaietara egokituta, hezkuntza, osasuna eta garapen komunitarioa sustatzen ditu integrazio, berdintasun eta kohesio sozialaren ikuspegiak aintzat hartuta.

Datozen orrialde hauetan, **Fundazioak eginiko ibilbidearen mugarri garrantzitsuenak gogoratuko ditugu, azken hogei urteetako historia ardatz hartuta**, baita aurreko urte batzuk ere, oraingo aldi hau ekarri zuten urteak, hain zuzen ere, behin erronkak gaindituta, lorpen asko erdietsita eta milaka lagunen bizitzan eragin positiboa eginda. Agiri honek, gure iragana ospatzeaz gain, etorkizunarekin dugun konpromisoa berretsi ere egiten du, eta lehengo egunetik izan dugun grina eta dedikazio berarekin aurrera jarraitzeko bultzada ematen digu. Eskerrak ematen dizkiegu historia honen parte izan diren eta mundu bidezkoago eta solidarioago bat eraikitzeko gure misioa babesten jarraitzen duten lagun, erakunde eta entitate guztiei.

Fundada por voluntad de don Manuel Calvo y Aguirre que, tras su experiencia en Cuba, regresó a su tierra natal con el deseo de contribuir al bienestar social de su pueblo, esta institución ha tejido a lo largo de más de un siglo una rica historia de compromiso y servicio. Desde sus inicios, la Fundación ha trabajado para abordar las necesidades de los más vulnerables, en sus primeras etapas de funcionamiento, dando de comer a los pobres y menesterosos del pueblo y, desde sus posteriores adaptaciones a los tiempos presentes, promoviendo la educación, la salud y el desarrollo comunitario desde la perspectiva de integración, la igualdad y la cohesión social más actual.

A lo largo de estas páginas, recordaremos los **hitos más significativos de su trayectoria, centrados en la historia de los últimos veinte años**, y algunos años previos, que fueron aquéllos en los que se preparó esta etapa, con los desafíos superados, los logros alcanzados, así como el impacto positivo que hemos generado en la vida de miles de personas. Este documento no solo celebra nuestro pasado, sino que también reafirma nuestro compromiso con el futuro, inspirándonos a seguir adelante con la misma pasión y dedicación que nos ha caracterizado desde el primer día. Agradecemos a todas aquellas personas, instituciones y organizaciones que han sido parte de esta historia y que continúan apoyando nuestra misión de construir un mundo más justo y solidario.



# 2005/2025

*Adiskide agurgarri horiek:*

*Ohore handia da niretzat Manuel Calvo Fundazioak azken hogei urteotan egindako langintza laburbiltzen duen jarduera-memoria aurkeztea, izan baitira oso urte esanguratsuak gizarte demokratiko baten esparruan garatuta, etengabeko eraldatze-prozesu batean.*

*Fundazioaren historia, hau da, gure historia, duela mende bat baino gehiago hasi zen, baliabide gutxikoei zuzendutako jantoki soziala abian jarrita, hain zuzen ere. Elkartasunezko keinu hark, Manuel Calvoren sentiberatasunak eta konpromisoak bultzatuta, ezarri zuen ibilbide baten hastapena, harrezkero etengabe eboluzionatu, egokitu eta hazteari utzi ez diona.*

*Orduko hartatik gaurdaino, fundazioak jakin du unean uneko erronkei erantzuten eta bere misioa eta estatutuak gizarte-behar berrienetara moldatzen. Egokitzeko gaitasun hori bereizten gaituen ezaugarrienetako bat da. Hala, azken hogei urteotan gure jarduketak askotariko arloetan garatu dira, besteak beste, gizarte-lidergoaren sustapena eta elkartasuna gazteen artean, berrikuntza soziala, boluntariotza, zahartze aktibo eta osasungarria, nazioarteko integrazioa, herritarren parte-hartzea, belaunaldiarteko egitasmoak, ingurumeneko babes eta sentiberatasuna.*

*Lanean jardun dugu topaketa-, entzuketa- eta lankidetza-espazioak sortzeko xedez. Gure ekimenek kohesio soziala eta dibertsitatearen aintzatespena balio aberasgarri gisara sustatzen dituzte, begirada inklusiboz eta konprometituz sustatu ere.*

*Memoria honek ibilbide hori guztia barne biltzen du, alegia, proiektuak, pertsonak, aliantzak eta ikaskuntzak. Halaber, langintza hau burutu duten guztiak omendu nahi ditu: teknikariak, boluntarioak, entitate kolaboratzaileak eta bereziki, gure jardueretan parte hartu duten guztiak. Izan ere, horiek guztiek ahalbidetu dute fundazioa konpromiso etiko eta gizarte-ekintzaren erreferente bat izan dadin.*

*Etorkizunari begira gaude, jaio ginen espiritu berberarekin, hots, zerbitzu- bokazioarekin. Gero eta dibertsitate eta konplexutasun handiagoko gizarte honetan berretsi egiten dugu fundazio ireki, dinamiko eta arras gizatiarra izaten jarraitu nahi dugula.*

*Eskerrak eman nahi dizkizuet gure lanean konfiantza edukitzeagatik eta partekatzeagatik guztien ongia egunez egun eraikitzen dela, gertutasun eta zehaztasunetik abiatuta.*

*Maitasunez eta esker onez.*

*Queridas amigas y amigos:*

*Es para mí un honor presentar esta memoria de actividades que recoge la labor de la Fundación Manuel Calvo durante los últimos veinte años, por haber sido esta una etapa especialmente significativa que se ha desarrollado en el marco de una sociedad democrática y en continuo proceso de transformación.*

*La historia de la Fundación, nuestra historia, comienza hace más de un siglo, cuando se puso en marcha un comedor social para personas con escasos recursos. Aquel primer gesto solidario, impulsado por la sensibilidad y el compromiso de don Manuel Calvo, marcó el inicio de una trayectoria que, desde entonces, no ha dejado de evolucionar, adaptarse y crecer.*

*A lo largo del tiempo transcurrido desde entonces hasta hoy, la Fundación ha sabido responder a los retos de cada momento y ha moldeado su misión y sus estatutos a las necesidades sociales emergentes. Esta capacidad de adaptación es precisamente uno de los rasgos que más nos define. Así, en estos últimos veinte años nuestra acción se ha desarrollado en campos como, entre otros, la promoción del liderazgo social y la solidaridad entre la población más joven, la innovación social, el voluntariado, el envejecimiento activo y saludable, la integración intercultural, la participación ciudadana y los programas intergeneracionales, la protección y la sensibilización medioambiental.*

*Hemos trabajado para crear espacios de encuentro, escucha y colaboración. Hemos impulsado iniciativas que fomentan la cohesión social y el reconocimiento de la diversidad como un valor enriquecedor, con una mirada siempre inclusiva y comprometida.*

*Esta memoria da cuenta de ese recorrido: de los proyectos, las personas, las alianzas y los aprendizajes. Pero también quiere ser un homenaje a quienes han hecho posible esta labor: equipo técnico, personas voluntarias, entidades colaboradoras y, muy especialmente, quienes han participado en nuestras actividades. Todas ellas han contribuido a que la Fundación siga siendo un referente de compromiso ético y acción social.*

*Miramos hacia el futuro con el mismo espíritu con el que nacimos: con firme vocación de servicio. En una sociedad cada vez más diversa y compleja, reafirmamos nuestra voluntad de seguir siendo una fundación abierta, dinámica y profundamente humana.*

*Gracias por acompañarnos, por confiar en nuestro trabajo y por compartir la convicción de que el bien común se construye día a día, desde lo cercano y lo concreto.*

*Con afecto y gratitud,*



*María José Blanco Gavieiro*

*Manuel Calvo Fundazioko presidentea / Presidenta de la Fundación Manuel Calvo*



## Manuel Calvo y Aguirre (1816–1904)

Manuel Calvo y Aguirre (1816–1904) indiano portugaletetarra izan zen eta XIX. mendeko Kubako enpresaburu nabarmena. Habanara emigratu zen 1834. urtean, Nautika ikasi ostean. Kuban zegoelarik, “denetarako morroi” gisa hasi zen, eta saltzaile gisa ere jardun zuen burdindegi ospetsu batean. Azkenean, Rosario Caballerorekin, jabearen alargunarekin, ezkondu ondoren, burdindegiaren jabe izan zen. Arrakastaz aritu zen itsas merkataritzan, salgaien garraioan eta azukregintzan. Portugalete izeneko azukre-ingenioa fundatu zuen, uharteko handienetako bat. Parte hartze aktiboa izan zuen Kubaren modernikazio ekonomikoan eta politikan, Comillaseko markesarekin batera.

Behin esklabotza abolituta, Europako eta Asiako langileak eraman zituen Kubara, azukre-landetan jardun zezaten. Gainera, zeregin nabarmena izan zuen Compañía Transatlántica enpresaren, Hispano-Colonial banketxearen eta Kubako Alderdi Espainiarraren sorreran.

Alargun eta ondorengorik gabe, Portugaletera itzuli zen eta hiriarekiko konpromisoa etengabea izan zen: han eraiki zuen bere jauregia 1871tik 1873ra bitartean, eta, hil zenean, eraikina eta bere ondasunen zati handi bat ongintzari utzi zizkion; hala nola, La Olla de los Pobres izenekoa, baliabiderik gabekoentzako jantoki soziala, eta San Joan Bataiatzaile Ospitale-Asiloa eraikitzeko lursailen doako lagapena.

Manuel Calvo Cadizen hil zen 1904ko martxoaren 16an. Haren gorpuzkiak Pandoko hilerrian daude, Comillaseko bigarren markes lagun eta oinordekoak eraikitako monumentu baten azpian. Jasotako legatuaren ondorioz, Portugaleteko Udalak heredatutako ondasunak kudeatzeko batzorde bat izendatu zuen. Horiek horrela, 1920az geroztik Manuel Calvo Fundazioaren batzordearen osakideak dira, estatutuen arabera, Portugaleteko Santa Maria parrokoa, Portugaleteko alkatea eta Udalak izendatutako zinegotzi bat.





## Manuel Calvo y Aguirre (1816–1904)

Manuel Calvo y Aguirre (1816–1904) fue un indiano portugalujo y destacado empresario en la Cuba del siglo XIX. Emigró a La Habana en 1834 tras estudiar Náutica. Allí comenzó de “mozo para todo” y ejerció de dependiente en una reputada ferretería de la que acabaría siendo dueño tras casarse con Rosario Caballero, viuda del propietario. Se dedicó con éxito al comercio marítimo, el transporte de mercancías y la industria azucarera. Fundó el importante ingenio azucarero Portugalete, uno de los mayores de la isla. Participó activamente en la modernización económica y política de Cuba, en colaboración con el marqués de Comillas.

Ante la abolición de la esclavitud, promovió la inmigración de trabajadores europeos y asiáticos para las plantaciones. Además, tuvo un papel relevante en la creación de la Compañía Transatlántica, el Banco Hispano-Colonial y el Partido Español en Cuba.

Viudo y sin descendencia, regresó a Portugalete y su compromiso con la villa fue constante: construyó allí su palacio entre 1871 y 1873 y, a su muerte, legó tanto el edificio como buena parte de su fortuna a causas benéficas, como el mantenimiento de La Olla de los Pobres, un comedor social para personas sin recursos, y la cesión gratuita de terrenos para la construcción del Hospital-Asilo San Juan Bautista.

Fallecido en Cádiz, el 16 de marzo de 1904, sus restos reposan en el cementerio de Pando, bajo un monumento erigido por su amigo y heredero, el segundo marqués de Comillas. Como resultado del legado recibido, el Ayuntamiento de Portugalete designó en 1904 una comisión para gestionar los bienes testados que se compone, según sus directrices estatutarias, por las siguientes personas: el párroco de Santa María de Portugalete, el alcalde de la misma villa vizcaína y un concejal designado por el ayuntamiento, que desde 1920 constituyen la Fundación Manuel Calvo.



Gobernuko ministro gorenaren Errege Agindua, 1920ko abuztuaren 20koa, zeinen bidez Manuel Calvo y Aguirre jaunak Portugaleten eratutako fundazioa ongintza partikular gisara sailkatzen baita.

Real Orden de 20 de agosto de 1920 del Excelentísimo Ministro de la Gobernación por la cual se clasifica como de Beneficencia Particular la fundación instituida por Don Manuel Calvo y Aguirre en Portugalete.

Seigarren orrialdeko transkripzioa (10-18 lerroak)
Transcripción (líneas 10-18) de la página 6

*PRIMERO, Que se clasifique como de Beneficencia particular la Fundación Instituida por D. Manuel Calvo Aguirre en Portugalete.*

*2º Que se reconozca como Patronos de la Fundación, al Alcalde y al Párroco de dicha villa, y al Concejal del Ayuntamiento de la misma, que designe la Corporación Municipal, con la obligación, que desde luego se impone al Patronato de rendir cuentas al Protectorado, son arreglo a la Instrucción del Ramo.*



**1.-** Manuel Calvo Fundazioa Manuel Calvo Aguirre jaunak eratu zuen, bere testamentuan hala ebatzita, eta Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren **1920**ko abuztuaren 20ko Errege Aginduak ongintza partikularreko fundazio gisa onartu zuen.

**2.-** Fundazioaren helburuak dira, eratu zeneko borondatearen arabera eta gerora egindako egokitzapenen arabera, "eltze eta ogi errazioak ordaintzea, herrian karitatezko ohitura baitago egunero behartsuen artean banatzeko, baita egungo garaietarako egokia den beste edozein helburu sozial ere".

**3.-** Fundazioko gobernu-organoaren kideak dira Portugaleteko alkatea, Portugaleteko Udalbatzak izendaturiko zinegotzi bat eta Portugaleteko Santa Maria basilikako abade parrokoa.

**4.-** Fundazioa bere jarduera garatzen aritu zen, eltze eta ogi errazioak banatzeko helburua betetzen, helburu hori zaharkitua suertatu arte. Hori dela eta, herriko behartsuei eltzeko errazioak eta ogia ordaintzeko jantokia desagertu zen. Parentesi baten ondoren, zailtasunen konponketari eta zirkunstantzia optimoen prestakuntzari eskainitako hamarkada barne, Fundazioak bere jarduerari berrekin zion 2005. urtean.

Fundazioak helburuak betetzeko eta jarduera garatzeko zeukan ondare bakarra Portugaleteko Hotela zen eta 1993ko uztailean suak hartu zuen. Une hartan, patronatua eraikinaren birgaitzea negoziatzen ari zen, eta hamar urte behar izan zituen hotela berreraiki eta martxan jartzeko. Horri esker, Fundazioak berriro ekin ahal izan zien sorkuntzako helburuei.

*Altxaera nagusia* *Alzado principal*



Gran Hotel de Portugalete eraikitzeko proiektu oinarrizkoa. 1993ko ekaina. S.A. ALTAU Arkitektura eta Hirigintza Tailerra

Proyecto básico-Construcción de Gran Hotel de Portugalete. Junio 1993. Taller de Arquitectura y Urbanismo S.A. ALTAU

*Pasealeku-altxaera* *Alzado paseo*



**1.-** La Fundación Manuel Calvo fue constituida en 1904, por disposición testamentaria de Manuel Calvo y Aguirre, y reconocida como de Beneficencia Particular por Real Orden de fecha de 20 de agosto de **1920** del Ministerio de Trabajo y Seguridad Social.

**2.-** Son los fines de esta fundación, de acuerdo con la voluntad fundacional y posteriores acuerdos de adaptación, "El pago de raciones de olla y pan que hay en el pueblo la caritativa costumbre de repartir a diario entre los menesterosos, así como cualquier otro fin social adecuado a los tiempos presentes".

**3.-** El órgano de gobierno está conformado por el que sea Alcalde de Portugalete, por un Concejal designado por el Ayuntamiento Pleno de Portugalete y por el que sea Cura Párroco de la Basílica de Santa María de Portugalete.

**4.-** La Fundación estuvo desarrollando su actividad y cumpliendo sus fines de repartir raciones de olla y pan, hasta que el mismo resultó trasnochado, por lo que desaparece el comedor destinado al pago de raciones de olla y pan a los menesterosos del pueblo. Tras un paréntesis, incluida una década dedicada a la resolución de dificultades y la preparación de las circunstancias óptimas, la Fundación reanuda la actividad en el año 2005.

En julio de 1.993 se había quemado el Hotel de Portugalete, que era el único patrimonio con el que la Fundación contaba para poder cumplir sus fines y desarrollar su actividad. En aquel momento, su patronato ya estaba negociando la rehabilitación del edificio y necesitó diez años para que el Hotel de Portugalete fuera reconstruido y puesto en marcha, lo que permitió a la Fundación, reanudar el cumplimiento de los fines para los que había sido creada.

**5.-** Urte batzuk geroago, 2005ean, estatutuetako xedapen egokituei jarraiki, zeinen arabera, helburua garai horretarako egokia zen beste edozein helburu sozial izan baitzitekeen, dirulaguntzen lehenengo deialdia egin zuen, udalerrian gizarte-arloko jarduerak sustatzeko. Onuradunak Portugaleteko biztanleak ziren, emakumeak zein gizonak, baldin eta desabantaila soziala bazuten.

**6.-** Fundazioa berriro martxan jarri eta bere helburuak bete ondoren, **2008**an, onuradun kopuru handiagoa lortzeko, gizarte-beharrak ezagutzeko eta hobetu zitzakeen kontuak zehazteko asmoz, Portugaleten zeukan zeregina berraztertu zen, berezko zeukan eremuan, hau da, gizarte-ekintzaren eremuan.

Urte horretan bertan, lehentasunezko hainbat jarduera-ildo ezarri ziren; horien artean, nagusiak dira boluntariotza sustatzea eta gizarte-desabantailako egoeran dauden udalerriko kolektiboei babesa eta baliabideak eskaintzea:

### Jarduketa zuzeneko lerroa

Fundazioak zuzeneko sostengua ematen die Portugaleten gizarte-eremuan diharduten erakundeei eta bereziki boluntarioekin batera dabiltzanei. Jarduketa zehatzak hauexek dira:

- Erakundeak sendotzeko ekintzak.
- Laguntza erakundeen antolamenduari, beharrezko baliabideak eta tresnak izan ditzaten.
- Laguntza erakundeen komunikazioari eta irudiari.
- Laguntza gizarte sentsibilizazioan.
- Dirulaguntzak antolatzea.

**5.-** Es en 2005, cuando siguiendo las disposiciones estatutarias adaptadas que indican que sus fines pueden ser cualquier otro fin social adecuado a los tiempos presentes, realiza la primera convocatoria de Ayudas Económicas, cuyo destino era promocionar las actividades en el ámbito social que se desarrollan en el municipio de Portugalete y cuyos beneficiarios son los habitantes de dicho municipio, mujeres y hombres, que se encuentren en situación de desventaja social.

**6.-** Una vez que la Fundación Manuel Calvo está de nuevo en funcionamiento y cumpliendo sus fines, en **2008**, con el objetivo de conseguir un mayor número de beneficiarios y conocer las necesidades sociales y definir los asuntos en los que puede intervenir para mejorar, procede a realizar una revisión del papel que debe cumplir esta fundación en el municipio de Portugalete en el ámbito que le es propio, el ámbito de la acción social.

Y en dicho ejercicio, establece diversas líneas de actuación prioritarias entre las que son preferentes la promoción del voluntariado, así como ofrecer apoyo y recursos a los colectivos en desventaja social del municipio:

### Línea de actuación directa

La Fundación realizará actuaciones de apoyo a las organizaciones que trabajan en el ámbito social del municipio de Portugalete, y en especial a las que cuentan con voluntariado. Las acciones concretas son:

- Acciones de fortalecimiento de las organizaciones.
- Apoyo en la gestión de las organizaciones dotándolas de recursos y herramientas necesarias.
- Acciones de apoyo en la comunicación e imagen de las organizaciones.
- Acciones de apoyo en temas de sensibilización social.
- Establecimiento de ayudas económicas.

### Unean uneko jarduketa lerroa

Helburua da erantzuna ematea gizarte-ekintzaren eremuan diharduten Portugaleteko taldeen, elkarteen edota erakundeen beharrizan zehatzei.

### Beste entitate pribatu eta publiko batzuekiko lankidetza

Hitzarmenen, urteko programen edo ekitaldien bidez, gizarte-ekintzari lotutako erakunde pribatu eta publikoekiko lankidetza sustatzen da. Ildo horretan jarri da abian Portugaleteko Boluntariotza Sustatzeko Zerbitzua, Portugaleteko Udaleko Boluntariotza Sustatzeko Sailarekin lankidetzan.

**7.-** Urte batzuk geroago, **2013**an, berrazterketa estrategikoa egin zen Trocóniz Santacoloma Fundazioarekin batera, beharrizan hauei erantzuna emateko asmoz:

- Iraganean egin gabeko hausnarketa egitea.
- Fundazio bien helburuak eta baliabideak bateratzea, praktikan nahiko batera zebiltzan-eta.
- Jasangarritasun handiagoa lortzea.
- Erreferentzia markoa egitea, epe motzean, ertainean eta luzean erabakiak hartzea errazte aldera.
- Fundazio bien identitatea eraiki eta berreraikitzea.

Horren ondorioz, LAN-ILDO hauek ezarri ziren fundazio bientzat:

- Hezkuntza: gazteria, hezitzaileak (irakasleak, gurasoak).
- Herritarrak: boluntariotza, elkartegintza, gizarte balioak, gobernantza.
- Enplegua: ekintzailetza, talentua.

### Línea de actuación puntual

Este apartado pretende dar respuesta a necesidades puntuales de colectivos, organizaciones o instituciones de Portugalete en el ámbito de la acción social.

### Colaboración con otras entidades privadas y públicas

A través de convenios, programas anuales o eventos se promoverán colaboraciones con entidades privadas y públicas vinculadas a la acción social. En esta línea se pone en marcha el Servicio de Promoción del Voluntariado de Portugalete en colaboración con la Concejalía de Promoción del Voluntariado del Ayuntamiento de Portugalete.

**7.-** **2013** En este año se lleva a cabo una revisión estratégica compartida con la Fundación Troconiz Santacoloma que responde a las necesidades:

- de abordar una reflexión que no se había realizado en el pasado.
- de hacer conjugar objetivos y recursos de ambas fundaciones que en la práctica ya se venían relacionando.
- de favorecer una mayor sostenibilidad.
- de crear un marco de referencia que facilite la toma de decisiones para el corto, el medio y el largo plazo.
- conveniencia de construir-reconstruir la identidad de ambas fundaciones.

Y establece como LÍNEAS DE TRABAJO de ambas fundaciones:

- Educación: juventud, educadores/as (profesorado, madres, padres).
- Ciudadanía: voluntariado, asociacionismo, valores sociales. gobernanza.
- Empleo: emprendizaje, talento.

- Zehar-lerroak: genero-ikuspegia, baterako sorkuntza, IKTak eta Internet baliatzea, berrikuntza, kanpoko eragina, inspirazioa

BALIOOK gidatuta:

- …IREKITZAILEA IZATEA.
- …ESPIRITU ETA JOKAERA KOLABORATIBOAK.
- …BETI HOBETU NAHIA ETA, ZER ESANIK EZ, BIKAINTASUNA LORTU NAHIA.
- …BERRITASUNAREN OSAGAIA.
- …JASANGARRITASUNAREN BILA.
- …INPAKTUA ETA KANPOKO AINTZATESPENA LORTZEKO.

- Elementos transversales: perspectiva de género, co-creación, aprovechamiento de las TICs e Internet, innovación, impacto externo, inspiración.

Guiadas por los VALORES:

- …EN MODO APERTURA.
- …CON ESPÍRITU Y COMPORTAMIENTOS COLABORATIVOS.
- …BUSCANDO LA MEJORA CONTINUA Y, POR QUÉ NO, LA EXCELENCIA.
- …CON EL INGREDIENTE DE LA INNOVACIÓN.
- …PERSIGUIENDO LA SOSTENIBILIDAD.
- …PARA ALCANZAR EL IMPACTO Y EL RECONOCIMIENTO EXTERNO.






**8.-** Hala **2025**ean nola etorkizunari begira, Fundazioaren jarduna, batetik, kontinuista izan da, 2013ko hausnarketa estrategikoaren emaitza behin gaindituta, eutsi egin baitio aurreko urteetako jardunari; eta bestetik, guztiz berritzailea izan da, etengabe zuzendu baitu bere jarduna, prozesuak ebaluatuz, helburuak gaindituz eta gizartearen bilakaeraren aldeko apustua eginez.

Berrikuntza, elkarbizitza, saregintza eta baliaideen optimizazioa direla kausa, helburua beti delarik programaturiko jardueren funtzionamendu eta garapen ona mantentzea eta jarduera kopurua handitzea, jarduera batzuk Trocóniz Santacoloma Fundazioarekin lankidetzan garatu ditu eta, horri esker, fundazio biek komunean dituzten helburuak batera betetzen dituzte, espazioak konpartitu, gastuak banatu eta baliabideak errentabilizatzen dituzte.

**9.-** Garai aproposa da, beraz, balioak egonkortzeko: ZABALTASUNA, LANKIDETZA, ETENGABEKO HOBEKUNTZA, BIKAINTASUNA, BERRIKUNTZA ETA JASANGARRITASUNA.

Garai aproposa da, halaber, 2013an ezarritako **lan-ildoak** mantentzeko, oraindirk ere egunekoak baitira: hezkuntza, herritarrak eta enplegua, zehar-lerroekin batera. Horiek guztiak kontuan hartuko dira Fundazioaren lan-prozesu guztietan, bere gizarte-izaerari lotuta.

Garai aproposa da, azkenik, berritzaileak izateko eta lehentasuna emateko herritarrentzako jarduerei, beti ere boluntariotza sustatzeari eta enplegugarritasuna hobetzeari begira, balioetako prestakuntzaren bitartez, horixe eskatzen eta behar baitu orain gure gizarteak.

**8.-** **2025** y para el futuro, su actuación se presenta, por un lado, continuista manteniendo la actividad que ha venido desarrollando en años anteriores una vez superado el cumplimiento del resultado de la reflexión estratégica realizada en 2013 y por otro lado con carácter absolutamente innovador, en cuanto a la corrección continua de actividad a través de la evaluación de los procesos, la evolución social y la superación de objetivos.

El carácter innovador, la convivencia, la creación de redes, la optimización de recursos de la actividad fundacional, siempre con la única finalidad de mantener el buen funcionamiento y desarrollo de las actividades programadas, y aumentar el número de personas beneficiarias, hace que algunas actividades las desarrolle en colaboración con la Fundación Troconiz Santacoloma, lo que permite cumplir objetivos coincidentes de forma conjunta, compartir espacios, distribuir gastos y rentabilizar los recursos.

**9.-** Es el momento de consolidar los valores: APERTURA; TRABAJO COLABORATIVO; MEJORA CONTINUA; EXCELENCIA; INNOVACIÓN; SOSTENIBILIDAD.

El momento de mantener las **líneas de trabajo** fijadas desde 2013, que siguen de actualidad: Educación – Ciudadanía – Empleo, junto con los elementos incluidos transversalmente que estarán presente en todos los procesos de trabajo de la FMC, adaptados a la cualidad social de esta fundación.

El momento de innovar y de dar prioridad a actividades de ciudadanía orientadas a acciones de promoción de voluntariado, apoyo al asociacionismo y promoción de los valores sociales, la mejora de la empleabilidad a través de la formación en valores etc. que son las que ahora demanda y necesita nuestra sociedad.

## JARDUEREN LABURPENA (2005-2025)

### LAGUNTZA EKONOMIKOAK (2005-2019)

Fundazioak 2005ean ekin zion berriz ere bere jardunari, Portugaleten gizarte-arloko jarduerak sustatzeko laguntza ekonomikoen deialdi bat eginda. Desabantaila sozialeko egoeran zeuden portugaletetarrak ziren jarduera horien onuradunak. Lehenengo deialdia 2005ean argitaratu zen, Portugaleteko gizarte zibilak aspalditik egiten zituen jarduerei sostengua eman nahian eta herriko hainbat erakunde edo elkarteri diruz lagundu nahian.

**Inpaktua:** 20 entitate, gizarte arloko 20 proiektu, + 6000 lagun.

## 2005-2025 RESUMEN DE ACTIVIDADES

### AYUDAS ECONÓMICAS 2005-2019

La FMC reanuda su actividad en el año 2005 con la convocatoria de Ayudas Económicas destinadas a promocionar en Portugalete las actividades en el ámbito social cuyos beneficiarios sean los habitantes de dicho municipio que se encuentren en situación de desventaja social. La primera convocatoria se publica en el año 2005. Pretende apoyar las actividades que ya se están llevando a cabo en Portugalete, por la propia sociedad civil portugaluja, apoyando económicamente a las distintas organizaciones o asociaciones.

**Impacto:** 20 entidades, 20 proyectos de ámbito social, + 6000 personas.

| ENTITATEA/ ELKARTEA | PROIEKTUA | ESKU-HARTZE ARLOA |
|---|---|---|
| SOCIEDAD RECREATIVA BURGALESA | Gizarte eta kultura proiektua, nagusiak gizarteratze aldera, hitzaldien eta gizarte lanen bidez | Zahartze aktiboa |
| SAN JOAN BATAIATZAILEAREN OSPITALE-ASILOETXEAREN FUNDAZIOA | Belaunadien arteko udalekuak | |
| HARTU EMANAK | Belaunadien arteko film-proiektua | |
| CARITAS FAMILIA | Familia eta gizarteratzea | Familia eta gizarte arloko esku-hartzea |
| RUPERTO MEDINA IKASTETXKO IGE | Familia adiskideak | Familia eta kulturartekotasuna |
| ASOCIACIÓN INTERCULTURAL PORTURAÍCES | Familia migranteen gizarteratze kulturartekoa | |

| ENTIDAD/ ORGANIZACIÓN | PROYECTO | ÁREA DE INTERVENCIÓN |
|---|---|---|
| SOCIEDAD RECREATIVA BURGALESA | Proyecto social y cultural para la tercera edad para socializar a través de charlas y trabajos sociales | Envejecimiento activo |
| FUNDACIÓN HOSPITAL ASILO SAN JUAN BAUTISTA | Colonias Intergeneracionales | |
| HARTU EMANAK | Proyecto fílmico intergeneracional | |
| CÁRITAS FAMILIA | Fis. Familia e Inserción Social | Familia e Inserción Social |
| AMPA RUPERTO MEDINA | Familias amigas | Familia e Interculturalidad |
| ASOCIACIÓN INTERCULTURAL PORTURAICES | Integración socio familiar e intercultural con familias migrantes | |

| ENTITATEA/ ELKARTEA | PROIEKTUA | ESKU-HARTZE ARLOA |
|---|---|---|
| ASOCIACIÓN PÁRKINSON NERVIÓN IBAIZABAL ACAPK | Errealitate birtuala, tresna terapeutiko gisara | Desgaitasunaren integrazioa |
| DEPORTIVA NÁUTICA | Igeriketa egokitu integratua | |
| BAOBAT | Bihotz afrikarra | Kulturartekotasun integrazioa |
| ASOCIACIÓN CASA EL SALVADOR | Segi Zaitez | Haur eta gazteentzako egitasmo sozioedukatiboa |
| CÁRITAS INFANCIA | Portu Txiki | |
| GIAKO AMA IKASTETXEKO IGE | Saskibaloiaren bitarteko hezkuntza | |
| SENDARTE | Gizarteratzeko proiektua, sormenaren bitartez, haurrak artatzeko etxean | |
| RUPERTO MEDINA IKASTETXKO IGE | Saskibaloiaren bitarteko hezkuntza | |
| AURRERANTZ | ELKARGUNE, gazteentzako topagunea eta informazio gunea | |
| AISIALDI SAREA | POBREZIA GAITZA DA. DESAGERRARAZI DEZAGUN | |
| ZUNZUNEGUI IKASTETXKO IGE | Saskibaloiaren bitarteko hezkuntza | |
| INERS ASOCIACIÓN CULTURAL | Gizarte eta kultura jarduerak, rol-jokoen bitartez | |
| PORTUGALETE ZAHARRAKO LARRANTXE AUZO ELKARTEA | Konpartitu | Sustapen komunitarioa |
| EPA JARRILLEROS | Beste patologia batzuk; sentsibilizatzeko jardunaldiak | Sentsibilizazio komunitarioa |
| GURUTZE GORRIA | Dibertsitatea eta tolerantzia: kulturarteko eta belaunaldien arteko ikaskuntzako esperientzia | Sentsibilizazio kulturartekoa eta belaunaldiartekoa |

| ENTIDAD/ ORGANIZACIÓN | PROYECTO | ÁREA DE INTERVENCIÓN |
|---|---|---|
| ASOCIACIÓN PÁRKINSON NERVIÓN IBAIZABAL ACAPK | Realidad virtual como herramienta terapeutica | Integración de la discapacidad |
| DEPORTIVA NÁUTICA | Natación adaptada integrada | |
| BAOBAT | Corazon africano | Integración intercultural |
| ASOCIACIÓN CASA EL SALVADOR | Segi Zaitez | Programa socioeducativo de Infancia y Juventud |
| CÁRITAS INFANCIA | Portu Txiki | |
| AMPA VIRGEN DE LA GUIA | Educando a través del Baloncesto | |
| SENDARTE | Proyecto de Inserción social desde los procesos creativos en Hogar de acogida de infancia | |
| AMPA RUPERTO MEDINA | Educando a través del Baloncesto | |
| AURRERANTZ | EIKARGUNE lugar de encuentro y punto de información juvenil | |
| AISIALDI SAREA | LA POBREZA ES UNA LACRA ACABEMOS CON ELLA | |
| AMPA ZUNZUNEGUI | Educando a través del Baloncesto | |
| INERS ASOCIACIÓN CULTURAL | Actividades socioculturales desde los juegos de rol | |
| PORTUGALETE ZAHARRAKO LARRANTXE AUZO ELKARTEA | Comparte | Promoción comunitaria |
| EPA JARRILLEROS | Otras patología, jornadas sensibilización | Sensibilización comunitaria |
| CRUZ ROJA | Diversidad y Tolerancia: una experiencia de aprendizaje intercultural e intergeneracional | Sensibilización intercultural e intergeneracional |

## ADAKA. 2008-Gaur arte

Fundazioak 2008an bere jardüera-ildoak birdefinitu zituenean, boluntariotzarako eta parte-hartze sozialerako BOLUNTA agentziarekin batera, hainbat jardüera-ildo ezarri zituen, besteak beste, Portugaleteko eremu sozialean lan egiten zuten erakundeei eta, bereziki, boluntariotza zutenei, laguntza ematera bideraturik, laguntza ekonomikoaren osagarri gisara.

Birdefinizio-prozesu horren barnean geundelarik, Fundazioak ildo horretan hala epe motzean nola ertainean egin zezakeen esku-hartzea argitu eta egituratu nahian, beharrezko ikusten genuen diagnosia egitea Portugaleteko gizarte desabaintaleko taldeentzako baliabideen errealitateari, batik-bat kontuan hartuta boluntarioak zerabiltzaten taldeak. Diagnosia eginda, hona hemen detektaturiko beharrizan batzuk:

.- Gizarte desabantaileko kolektiboekin ziharduten erakundeen beharrizanak: prestakuntza saio gehiago boluntarioentzat eta gainontzeko laguntzaileentzat; gizartearen eta erakundeen aintzatespen handiagoa; boluntario gehiago; barne eta kanpoko komunikazioa eta koordinazio hobea Administrazioaren eta entitate zibilen artean.

## ADAKA. 2008-Actualidad

La fundación Manuel Calvo, cuando en el año 2008 lleva a cabo una redefinición de sus líneas de actuación acompañada de la agencia para el voluntariado y la participación social BOLUNTA, marca diferentes líneas de actuación, entre las que se encuentra la destinada a apoyar (de forma complementaria a lo que es el apoyo económico) a las organizaciones que trabajan en el ámbito social del municipio de Portugalete y, en especial, a las que cuentan con voluntariado.

Dentro de este proceso de redefinición, con el fin de clarificar y estructurar más acertadamente la intervención que la fundación Manuel Calvo puede llevar a cabo en el corto-medio plazo en esta línea, ve la necesidad de realizar un diagnóstico sobre la realidad de los recursos para colectivos en desventaja social del municipio de Portugalete, de manera especial en los que interviene el voluntariado. De este diagnóstico se recogen como necesidades las siguientes:

.- En el caso de la necesidades de la propias organizaciones que trabajan con colectivos en desventaja social: mayor formación para personas voluntarias y demás colaboradores, mayor reconocimiento social e institucional, mayor volumen de voluntariado, mejora de la comunicación interna y externa, potenciación de trabajo en red y mejor coordinación entre administración y entidades civiles.

2008-2024

2025



.- Lan boluntarioaren beharrizanak: boluntarioak erakartzea; boluntarioen arreta hobetzea; Administrazioaren aintzatespen handiagoa.

Berraztertze-prozesu horrek bat egin zuen Portugaleteko Udalak 2008an hasitako boluntariotzaren sustapenarekin; izan ere, Udalak Boluntariotza Sustatzeko Saila sortu ere sortu zuen.

Interesak eta aukerak bat etorrita, ADAKA ere sortu zen, hau da, Portugaleteko BOLUNTARIOTZA SUSTATZEKO ZERBITZUA, Manuel Calvo Fundazioaren eta Portugaleteko Udalaren lankidetzari esker, Boluntariotza Sustatzeko Udal Saila tarteko.

